

diko norbaitek txostenen bat bidali edo bertan parte hartu nahi baldin badu.

Beste gabe, ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1971-V-28

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971ko maiatzaren 28an, arratsaldeko lauretan.

Bildu dira: Luis Villasante buru, Jean Haritschelhar buruordezko, Arrue, Diharce, Irigoyen, Labayen, Lafitte, eta Zabala jaun euskaltzainak; Akesolo, Altuna, Berriatua, Etxaniz, F. Setien, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Lizundia, Ruiz Urrestarazu, Sarasola, Zatarain eta Zugasti jaun laguntzaileak, San Martín idazkari dala.

Dassance, Eppherre, Larzabal eta Satrustegi jaunak ezinetorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Apirileko agiria ontzat hartzen da. Bertan esan gabe utzi zan, Erkiaga diru-zainak, bere etorri ezinagatik, idazkari-ordezkoaren esku utzi zuela aurtengo lehen hiru hilabeteko kontu ematea.

a) *Har-omanak*: Washington-dik Embajada de España-ko gutuna, eskerrak emanez beren eskaria beteaz *The Legend and Tales of the Basque People* Mariana Monteiro-ren liburuari buruzko berriak bidali genizkiolako.

Caja Laboral Popular-eko zuzendari den Jose Mari Ormaetxearen gutuna, egin genien diru eskariari erantzunaz, 50.000 pezeta bialtzen digutela aditzera emanez. Diru hau zernahitarako subentzio bezala ematen digute, batez ere gure biblioteca era-berritzeko. Eskerrak eman bekiez.

Ixaka Lopez Mendizabal euskaltzain ohorezkoaren gutuna irakurri da, Patrick J. Farrell jaunak bere gramatikari inglesera egin dion itzulpenaren zuzenketeri buruzko xehetasun batzuk eskatuaz. Idazkariaren esku gelditzen da xehetasunak idazkiz ematea.

Hartu diren liburuak: Diharce jaunak, *Aldareko liburua*, Liturgiari Kontzilio ondorengo lehen urratsa Belokeko Beneditanoek egin eskaintzen du, eta P. Lafitte jaunak Ikas-koek argitara berri duten Jean Barbier-en *Antxitxarburu-ko buhamiak* izenekoa. Eskerrak eman zaizkie.

b) *Araudia berriztatzeko batzordearen lanen berri ematea*: Euskaltzainhuruak aditzera ematen du zenbait azterketa eta zuzenketa egin zaizkiola lehen idazkiari eta orain Lojendio jaunaren eskuetan utzia dala, zenbait orraztaka egiteko. Orraztapenon ondorean, batzordeak berri dildurik begiratu duela biltzarrean presentatu aurretik.

d) *Idazte arauen batzordeak prestatu duen txostena*: "Puntuazio marka batzuk non, noiz eta nola jarri": Euskaltzainburuak irakurri du lan honen sarrera, egoan premia adieraziaz eta lan-estudioa zelan eraman den kontuak emanez. Ondorean, batzordeak presentatu duen lana aztertu da eta erabaki hauek hartu.

1. Harridura eta galdera markak (!?) esaldiaren bukaeran bakarrik jartzea.

2. Zenbakiak. a) Ehuneko hainbeste adierazteko: % 5 = ehuneko bost. b) Ordinalak. Erromatar zenbakiz idaztean puntu bat beste adigarrikerik ez jartzea. Adibidez, X. mendea (Hamargarren mendea). Deklinazio kasua jarri behar denean, puntua eta atzizki soila jartzea aski da. Esate baterako, XX. ean (hogeigarrenean). Arabitar zenbakiz idazten direnean, puntu soila jar bedi azken zenbakiaren ondoan. Adibidez, 200. urteburua (Berrenhungarren urteburua). Eta deklinazioan, berdin, puntuaren ondoan atzizki soila jartzea aski da. Esate baterako, 200.ean. Hala ere ez da baztertzen beste era, baina osorik jartzea gomendatzen da: 17garren eta abar. "Lehengo", "Bigarren" eta abar, era hontara idaz ditezke: 1., 2., eta abar. d) Kardinalak. Nahiz eta zenbakiaren ondorean atzizkiren bat etorri, zilegi izan bedi tartean ezertxo ere ez jartzea. Adibidez, 8an (zortzian). Arrazoa: sinpletasuna eta premiarik eza.

3. Komatxodun hitzen ondoren, nahiz eta atzizkiren bat egon, zilegi ian bedi, orobat, tartean ez deus jartzea. Adibidez, "Anaitasuna"n, "Jakin" era, "Zeruko Argia" tik. Arrazoa, sinpletasuna eta gehiagoren beharrik eza.

4. Siglez osatutako hitzak, letra maiuskulez jar ditezke, eta deklinazioan, atzizkia letra arruntez, bat ere tarterik gabe. Adibidez, UNESCOren, USAko. Arrazoa, sinpletasuna eta gehiagoren premiarik eza.

5. Apostrofua ('). Honetan ohitura bat baino gehiago izan da. Adigarri honen zeregina eta marratxoarena ongi mugatu eta berezi behar dira bata bestetik, bakoitzari bere balio eta esanahi jakina ezarriz. Berzketari hori egin nahiz, eta gaur idazlerik gehienek harturik duten bidea onartuz, Euskaltzaindiak erregela hau proposatzen du: hitz batean letra bat edo beste jan dela adierazi nahi denean, orduan jarriko da apostrofua. Esate baterako, "Bederatzi t'erdia". Arrazoa, hau da inguruko hizkuntzetan marka honi ematen zaion balio edo esanahia. Gure artean ere franko ugariak dira bide honi jarriak direnak, eta marratxoaren eta apostrofuaren zeregina ongi berezteko, bide hau hartu eta finkatu behar dela dirudi. Beraz, erregela: hitz batean hotsen bat ezabatu dela adierazi nahi denean, apostrofuaz aditzera eman bedi. Hontaz, ordea, oharpen bat egin beharra dago: benetazko premiarik ez denean (zerbait berezi adierazteko edo), horrelako jate hoiak ez direla iskrribuz adierazi behar. Beraz, hitzak osorik idaztea gomendatzen du Euskaltzaindiak.

6. Marratxoa (-). Zubi antzo, lokarria adierazteko erabiltzen den marra txikia. Bi hitzen artean edo hitzaren eta atzizkiaren artean jartzen da. Ez ordea beti. Adigarri honetzaz euskara idatzia gehiegi zama ez dezagun, kasu beharrezkoetan bakarrik jarri behar dela uste dugu. Kasu hoietaz landara, bat ere markarik ez erabiltzea hobe. Hona hemen, bada, kasurik beharrezkoenak: a) Pertsona edo toki izen propioetan. Arrotzak, ezezagunak edo guti ezagunak direnean bakarrik. Adibidez, "Scott-ek", "Bremen-en", "Hitler-ek". Gainerakoetan deus ez. "Orion", "Bolibarren", "Gernikatik", "Parisen"; "Mogelek", "Axularren irakurgai"... b) Aldizkari eta liburu izenetan, aipametan eta atzizkiren bat segitzen baldin bada, tartean marratxoa jarri beharra dago.

Adibidez, "Garoa-n irakurtzen da", "*Peru Abarka*-tik jasoa". "Frantsezko *corps-ek*" (letra berezia marraraino bakarrik). d) Atzikia edo aurritzia soilik aipatzen denean. Adibidez, "*tu atzikia*", "*ber-aurritzia*". e) Hitz elkarteetan. Ez ordea beti. Hitz elkarteak beti sortzen hari da euskara. Beti horrelakoetan marra jarri beharra, aspergarri eta are itsusi ere litzake. Aipa ditzagun kasurjk beharrezkoenak. Hoietaz landara, ezer ez jartzea hobe: — Hitz elkartearen bigarren zatia lehenbizikoaren oiartzuna denean. Adibidez, "Tarteka-marteka", "nahas-mahas", "duda-mudatan". —Marratxoa jarri gabez, hitz elkarte ete den garbi ageri ez denean. Adibidez, "Kandela-argia", "batzar-agiria", "andre-sendagile", "haur-saltzaile". Beti ordea, horrelakoetan, jarri beharrik ez da: hitz laburrak direnean edo lehenbiziko hitzaren bokala galdu ez, baina aldatu egiten denean, hobe da dena loturik idaztea. Adibidez, "Ahazabal", "buruhandi", "sudurluze". —Bikotea osatzen duten esaldietan. Adibidez, "Senar-emazteak", "seme-alabak", "nagusilangileak". Marratxoaren enplegua kasurik beharrezkoenatarako utz bedi.

Hauek dira puntuazio markeri buruz ontzat hartu ziren erregelak.

e) *EUSKERA* aldizkariaren *urtego zenbakiaren berri*: hortarako izendatua den batzordearen izenean idazkariak eman ditu berriak. Urteko lau aleotarik, lehen bikoteak osatuko du gertatu den zenbakia, *EUSKERA*, XVI (1971), 1-2, eta Euskaltzaindiaren urre-eztaien azken ondarreri eskainia joanen da. Lan horiez hornitua: Euskaltzainburuaren agurra; Urre-eztaien kronika; Euskaltzaindiaren sorrerako lehen agiria; R. Menendez Pidal-en gutuna; Arantzazuko agiria: Euskaltzaindiak Ministeriora egin zuen gutuna (*Libro Blanco*-ri oharrez); Euskaltzaindiak egin zituen batzar berezietako hitzaldiak: Iruña, Baiona, Gasteiz, Bilbao eta Donostia; Hilen izeneri buruzko txostena, eta txostena egiteko oinharri hartu ziren kuestionarioen berri; 1968-1969.eko batzar-agiriak; 1968-1969 an hartu diren liburuen fitzak; Euskaltzainen lista, numeroko, ohorezko, laguntzaile izen-deiturak eta izendatu ziren urtea, Euskaltzaindiaren sorreratik hasita. Zenbaki honek argazkiak ere eramango ditu, sorrera inguruko eta urre-eztaietakoak.

f) *Bertsolarien txapelketak taxutzeko jarri zen batzordearen berriak*: Zabala jaunak irakurri du batzordearen izeneko txostena. Antolakizun berriaren asmoak agertu ditu. Txapeladunen maila bat jarriko da eta txapelketa bakoitzean berri bat aterako da, lehendik diranekin batean txapeladunen mailan jarriko dena. Txapela ez kentze honek, uste da, giro hobe bat sortuko duela bertsolarien artean, txapelketak hain izugarriak ez izateko.

g) *Batzordeak eta bakoitzak dakarrena*: Ruiz Urrestarazu jaunak, Arabako batzordearen izenean, irailaren 5-erako eskatzen du probintzia hortako batzarra. Aramaion izango litzake, eguerdiko 12-etan, batzar-idikia, herriari begira. Aramaioko Udalaren eta Arabako Diputazioaren babespean izango litzake. Batzar honetan, bertako seme eta euskal idazle den Patxi Uribarrenen hitzaldia izango da.

Beraz ondorengo hiru hilabeteetako biltzarrak honela jartzen dira: uztailekoa, hilaren 4-an Beskoitzen (Lapurdi), Leizarragaren ohorez aurtun 400 urte betetzen direlako idazle honen Testamentu Berria argitaratu zala; abuztukoa, Donostian bertan izango da, baina hillaren 4-an; eta irailaren 5-ean (irailaren lehen igandea) Aramaion (Araba).

Haritschelhar euskaltzain-buru ordeak adierazten du zer eratan izango den Beskoitzeo bilera-idekia, Baionan egiteko den euskal kulturaren astearen barnean. Bileran izango diren hitzaldi laburrak: P. Lafitte jaunak, *Leizarraga nor zen*; R. Lafon jaunak, *Leizarraga euskal idazlea*; eta, L. Akesolo jaunak, *Leizarragaren garaia*.

Mitxelenak, gutunez aditzera ematen digu, Arkitektoen Kolegiara zerbait adierazteko premia dagoela, etxegintza hiztegiari buruz, lanak nola doazen agertuaz. Luis Jesús Arizmendi jaunaren izenera idatziaz edo ahoz adieraziaz.

Satrustegi euskaltzainaren gutuna irakurri da "Goiz-Argi" aldizkariak Gaztañaga jaunak izenpeturiko lan batean, egiaren aurkako giro bat sortzen duela bere izena eta Euskaltzaindiarena zalantzan utziaz adieraziz. Lehen ere, Gaztañaga jauna zenbait aldiz sartua dela Euskaltzaindiaren kontra, eta egiaren alde eta irakurleen jakingarri erantzuna ematea erabaki da. Satrustegi jauna, Arantzazuko bileretan, moderatzaile izan zela, han ziren euskaltzainen eta euskaltzain-buruaren onespenez izendaturik. Beraz, ez zela gidari izan, ez eta ere berak bere burua izendatu neurri-emale kargurako. Gainerakoan, Gaztañaga jaunari EUSKERA hobeto irakurtzea gomendatzen zaio.

Josu Arenaza laguntzailearen gutuna irakurtzen da, diru kontuetan, lehen hiru hilabeteko 439.320,14 pezeta urritzearen argitasunak eska-tuaz; alogerak, Alfabetatze kanpaina, EUSKERA aldizkaria eta abar, diru emaitzak zelan egiten diren. Legez, laguntzaile bati holako kon-tuak eman beharrik ez bada ere, Erkiaga diru-zain jauna mintzatu da Arenaza jaunarekin urritzearen xehetasunak agertuaz. Eta, Alfabetatze kanjainak, berak beren lepotik ordainduak direla Euskaltzaindiaren ardurapekoak izanik ere.

Frederic Roda jaunagandik Iruñako bileren agiria jaso da. Herri Hizkuntzen Idazkaritzaren presupuestu bat ere presentatu da. Idazkaritza osatzen duten lau elkargoen artean bete beharrezkoa. Burugoak estudiatu beharko du hau zelan bete.

Aditz-batuaren batzordeko direnak, HEGOSA-k antolatutako aditz sariketa lehenbait-lehen erabakitzea komeni dela esan da.

Zatarain jaunak, Soin hitzaren adierazpenezko txosten bat irakur-tzen du, eta berakin batean J. M. Barandiaranen gutuna. Ataunen behinpehin, *soin gorputz* bezala erabiltzen dela adieraziz. Eibarren ere hala dala, dio T. Etxebarriaren *Lexicón*-ean agertzen denez. Baina idaz-kariak hau ezeztatzen du, esanez Eibarren inoiz ez dala erabiltzen *soña* hutsik, baizik *soñean* edo *soñeko*, "acuestas" edo "lo de acuestas" (=ves-tido) adierazteko. Ataunen hola balitz ere, lokalismoa dala eta euskera baturako hainbeste axola ez duena, beste tokietan bestelako esan nahi bat hartzen duelako. Baita ere, esan da, holako elkarrizketak hobe di-rela garrantzi gehiagoko hitzetan, batasunaren izenean behintzat, *kantu* erabili behar dela eta ez *abesti*, adibidez. Hala ere, konsideratzen da Zatarain jaunaren txosten jakingarria, baliozko azterketa denez.

Ondarroako Isidoro Etxebarria jaunak, Euskal Alfabetatze taldeent-zat hileru 4.000 pezetako laguntza eskaintzen du. Eskerrak eman bekioz.

"Xenpelar" izeneko bertso-paper sariaren erabakia urrengo batza-

rrerako utzen da, lehenago hartuak ziren zenbait bertso kontuan izan ez direlako.

Beste gabe, ohi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1971-VII-4

Beskoitzen, 1971ko Uztailaren 4an, jaialdi eta biltzar idekia Leizarragaren ohorez, *Testamentu Berria* euskaraz lehen argitaratzearen 400. urteburuan.

Goizeko hamarretan herri-meza konzelebratua, Diharce "Iratzeder", Villasante, Lafitte eta Irigarai gazteak ofiziatua. Diharce jaunaren hitzak, euskaraz lehen aldiz Kristoren hitzak idatzi zituen Leizarragari eskainiak ziren, Kalbinista ba zen ere, kristau zenez.

Meza ondorean, jendez beterik egoan eliza eta herriko-etxearen tartearen den plazatxoa, beraskoiztar eta herbestekoz. Hamaika t'erdietan, herriko-etxearen atadian, Jean Eyherabide auzapez jauna mintzatzen da, han bilduak herriaren izenean agurtuaz, Euskaltzaindiari ongi-eto-rria emanaz eta Leizarraga beraskoiztarra goretsiaz. Bukatzeko, herriko-etxearen sarreran oroit-harri bat agerian jartzen du, hitz horiekin: "Beraskoiztarrek Joanes Leizarraga idazleari".

Beskoitzeko kantari andana batek, Leizarragaren ohorezko kanta bat eman du, hara heldu direnen entzungarri.

Plazan, Zabala txistulariaren doinuz herriko gazte eta gaztetxo andana dantzatu da.

Ondoren, herriko-etxeke gela nagusian Euskaltzaindiaren bilera hasi da, herriari begira antolatua. 57 entzulo kontatu ditugu bildu direnen arteko, herritarrak, herbesteko euskaltzale, Euskaltzaindiaren laguntzaile eta euskaltzainak. Mahaiburuan, Jean Eyherabide auzapeza, Villasante euskaltzainburua, Haritschelhar buru-ordea, Lafitte, Lafon eta Akesolo hizlariak eta idazkaria. Horiez gainera, bertan dira beste euskaltzain hauek: Arrue, Dassance, Diharce, Eppherre, Irigaray, Irigoyen, Larzabal eta Zavala.

Lehenengoz Villasante jauna mintzatzen da, bilduak, Beskoitzeko herria, harrera bikaina egin digun auzapez jauna eta erretore jauna agurtuaz; zerek ekarri gaituen adierazten du eta hizlariak presentatzen ditu. Bukatzeko, Eyherabide auzapez jauna eskertzen du.

Jean Haritschelhar euskaltzainburu-ordeak, Piarres Duny Petre-ren ("Piarres Hegitua") letra irakurri du, bertsoz egina, Leizarraga zena eta biltzarkideak agurtuaz: eta, ondoren, hizlarietara hitza eskaintzen die.

Lino Akesolo jauna Leizarragaren garaiari buruz, batez ere garai haretan eta orduarte euskaraz idatzi zenari buruz. Orduan iratzartu zen giroari eskerrak sortu ahal izan zela Axular bezalako idazlea.

Piarres Lafitte jaunak jarraitzen du, Leizarraga nor zen adieraziaz. Orainarte izkutuan ziren puntu asko agerrera erazten ditu, eta beragandik lehen aldiz jakiten dugu Leizarraga 1506 urtean jaioa zela, eta *Testamentu Berria* euskaratzen hasi zenean hirurogei urte hurbil zituela.